

IRITZIA

zuzendariari

BERRIAK irakurleen eskutik plazaeratu dituzte. Tarte bikoitzera idatzitako orrialde batean kabitu behar dute, eta BERRIAK motzeko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen eta herria adierazita: BERRIA, Martin Ugaldere Kultur Parkea, 30012 Andoain, iritzia@berria.info

Ezker Batuak zer dio?

Jaurilaritzeko Ingurumen sailburuordeak Pasaiaiko kanpoko kaiaren egitasmoa zalantzan jarri eta krisioren kalapita sortu da. Diputazioa, Eusko Jaurilaritzaren Garraio kontseilaria, Gipuzkoako Ganbera, alderdi politiko gehienak haserre azaldu dira. Ingurumenak lehentasuna duela ekonomiaten gainetik? A zer nolako biraua! Ez da hain sinplea, jakina. Alabaina, egitasmoaren gastuaren zati nagusia publikoa izango dela, eta etekina, berri, pribatua kontuan harturik, badugu arrazoirik esateko, ekonomia alorrean ere Pasaiaiko kanpoko kaiak ez duela ez hankarik ez bururik. Dena den, horrelako kasuetan ikusten da, nola ulertzen duten batzuek «garapen jasagarria edo sostengarria».

Goraipatzea da afera honetan (ez ordea, AHTrekin eta errausketa plantarekin) Ingurumen Sailaren jarrera. Adorea erakutsi du, eta hori eskertzea da, interes handien aurrean makurtu ez izana. Harritzen nau, berri, Ezker Batuaren jarrerak. Fin dabil errausketa plantaren aurka, ez hain fin AHTrekin (desagertu egin zaigu mobilizazio esparrutik), Pasaiaiko kanpoko kaiaren aferari, berri, mutu.

Zergatik? Ez dut ulertzen. Alde baterik, bakar-bakarrik utzi du gatazkaren erdian, gobernu-kide duten Ingurumen Saila. Besterik, beren esku daude Pasaiaiko, Errenteriako eta Oiartzungo udal-lekuen hirigintza sailak. Eta isilik daude. Ez dute iritzirik? Ala alde daude baina ez dira auzartzen beren jarrera publikoki agertzen? Poztuko nintzateke hala ez izatea, eta, beraiek ere, argi eta garbi adieraztea: Pasaiaiko kanpoko kaiaren egitasmoa, hartzen den aldetik hartzen dela, erokeria bat dela, gutxi batzuen patrikak betetzeko *asmaturiko egitasmoa*.

Bukatzeko. Pasaiaiko Udalak zergatik ez du argitaratzen ETOR elkarteak egindako lana? Bertan oso ondo agertzen da Badiako herritarren gehiengoak zer iritzi duen.

Joxe Iriarte, *Bikila*
Idazlea, Zutik-eko kidea

Euskaltzain osoa eta ohorezkoa

Berriki jakin dugu Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegik ez duela onartu ohorezko euskaltzain izateko izendapena.

Neuk adierazi nahi dut hemen ezen Txillardegik euskaltzain osoa eta ohorezkoa izateko ez duela behar inork horrela izenda dezan.

Jose Luis ohorezko gizona dugu eta euskaltzain oso.

Azkeneko hogeita hamar urteotan euskara ikasten ibili izanak argi eta garbi erakutsi dit euskaltzain hitzaren esanahia euskara zaintzen duen pertsona dela. Txillardegik jauna ardiak zaintzen ibili balitz arztaina litzateke, baina berak euskaldunak eta euskara zaintzen osoki eta beteki eman ditu bere urterik gehienak.

Bai, Jose Luis Alvarez Enparantza jauna euskaltzain osoa eta ohorezko euskaltzain da.

Zergatik bahitu behar izan dute euskaltzain oso terminoa rugby euskaraz errugbi idatzi behar dela arautu eta erabaki duten emakume batek eta hogeita hiru gizonek? Uste al dute benetan hori euskara zaintzea dela? Ez al dakite besterik egiten gure politsikoetatik jasotzen duten diruzarekin? Ala sinpleki disfrutatzen dute?

Jose Lavín
Getxo

Gazte hauek!

Euskadiko gazteak ez omen dira abegikorak. Gaurko gazteek ez omen dute kanpotik etorritakoa begi onez ikusten. Beharrak eragina etorritakoa esan nahi nuke. Munduko paraje urrunetako

tik gurera etorritako tropela ikusteko ez omen dira bide bazterretara joaten; ez dute izerditan blai, hotzikarak jota helmugara ozta-ozta heltzen dena txalotzen. Ez dira tapañia eskuan, epelara babesa ematera joaten. Txaloak kanpotar ospe-tsuek, dirudunek... jasotzen dituzte. Behar gutxiak dute-nek, alegia. Horiek bai, horiek atetzarra pare pare zabalik izan ohi dute.

Bestelakoak dira gaizki ikusitakoak: kolorearenak salatzen dituenak. Hori dena inkestek diote. Gazteen tenperatura neurtzeko erabilitako sukargailuak dio. Nagusiek gazteen gainean eginiko galdeketeak.

Baina hori baino ez dute esaten, zeren eta inkestak hitz gutxiak dira, itsasoko olatuak zapatarik gabekoen oinetan pausatutako zipritinak bezalakoak. Gainera, komeni ez berbatia izatea; bestela nagusiok nabarmen geldituko gara, guk errendakoa eurek jaso baitute.

Beste aukera bat izan daiteke politikariena: nolako gizartea nahi dute? Gero eta hobeto ulertzen dut mundua. Gero eta hobeto ulertzen dut zergatik irabazten duen helduen eskuinak. Ez larrutu gazteak, geure buruaren ispilua dira-eta.

Juan Luis Mugertza Unanue
Berango

Larrepetit

Arratiako tranbia



NAGORE AMONDARAIN

Herria eta hiria lotzeko elementu naturalena ibaiak izan da Arratian, Gorbeian hasi eta haran guztia erdi-erditik zeharkatzen duena. Baina ibaiaren bazter-bazterretik eta norabide berean, tranbia izan zen arratiarrak hirira hurbildu zituen, Arestik ere izan zuen fenomeno honen berri, «Arratiko gizona Bilbora doa maiz, Lemoako tranbiana eta beti garaiz». Txikitan, kanta ikasteen, gure presentziak hirian edo Arratia ez zen beste tokietan kuratzen ginen. Gure berri bazekitela, gure amamak hiria ezagutu zuela...

Arratiako tranbia mito bat izan da eza-gutu ez dugu onontzat, argazkietatik berreturik dirugu sutondoko kontuak. Franco-ren garaiko eskoletan, andereñoaren zigorra ez dugu onontzat, eskolatik alde egin eta tranbia martxan zegoela bertara igo eta al-boko herrira joaten zirena (western-ak ez ziren nobedadea arratiarrontzat) edo Bilboko Santutxu eta Begoña auzoko arratiarrez bete ziren bidaiarrien kontuak.

Tranbia mitoa izan da ezagutu zutenen-tzat ere, tranbiari agur esan eta gero, egon zen tranbia bat erosi eta zahaitz bat landatzearen antzera, etxe aurrean ipini zuenik.

Lantegi berrietarako eta mundu berrirako atea omen zen tranbia. Baina tranbiaren norabidea ibaiaren zela esan da beti, ez dugu sarritan kontrako norabidearen eraginaz berba egin, hirikoek gudan izan zutenaz. Herrien iazera mantendu eta hirikoen ezberdintasunaz aberastu behar-rean, herriaren esentzia galduta hiriarrearen fenomeno nagusitzen ez ote dabilen galdetuko nieke alboan izan ditugun tranbiaren azken erabiltzaileci.

galde-eskeak



ROGE BLASCO
KAZETARIA

La casa de la palabra ezohiko irratsaio bat da irrati publiko batean; irrati libreen ezaugarri gehiago ditu. Uharte bat sentitzen zara Radio Euskadin, are 'Mar de fuegüitos' kendu zutenetik?

Joseba Artola

Ez, ez naiz uharte bat sentitzen irrati honetan. Urte asko daramatzat etxe honetan lanean, eta sekula ez didate mugarik jarri nire irratsaioa egiteko moduan; ez dut inolako eragozpenik izan nahi dudana egin ahal izateko. Inork ez du nire irratsaioen ildo auzitan jarri, eta horrek asko poztzen nau. Gainera, lan talde jatorra da Radio Euskadikoa. *Mar de fuegüitos*-i dagokionez, berri, neu izan nintzen samini handiena hartu zutenetarikoa bat. Gorka Andreaka esatariaren jarraitzaile sutsua nintzen, eta min egin zidan irratsaioa desagertu zenean.

www.berria.info

Baduzu Durangoko Azokara joateko ohiturarik?

BAI	% 82
EZ	% 18

Ohitura dut bai, nahiz eta azken urteotan (ez da egoitza berriarekin konpondu arazoa) jendeak gainetza egon eta ezin materialak lasaitasunez aztertu eta dastatu. **makala**

Urteetan joan naiz, baina azken urteotan ez naiz joaten... errebeldia puntu batengatik. Zer egiten dugu, urte osoan ezte ondoko liburudendan ezer erosi ez eta Durangora joan erostera? Hobe geundeko Durangora joaten gastatzen dugun dirua etxe ondoko dendan gastatuko bagenu, euskal kultura sendoagoa litzateke. Hori bai, lagunekin egoteko-eta ondo dago. **xabi**

Jendetza izugarria eta kultur gile euskaldun asko ikusteko aukera dago Durangon. Urtean lau egun baino gehiago jarriko nituzke; agian bi azoka. **irakurle bat**

hitz beste

Izen ona

ANJEL LERTXUNDI

Egunkaria kasuko inputuak deklaratu ari ziren ordu berean, berripaper honetan ageri zen larri-dei hunkigarri batean giltzatu zitzaizkidan begiak: Ana Mari, Martin Ugaldere alargunak, bere senar zenaren izen ona garbitzeko eskatzen zion Del Olmo epaileari. Justiziazkoa da eskaera, baina errepara ezina Del Olmok eragindako kaltea Martin ezagutzen ez zuten askoren burmuinetan, hedabideetan, jardun publikoan, Martin zintzoari buruzko iritzi eta aurreiritzi gaiztoetan.

Ana Mari, Martinen bihotz-begietakoa, kontrolatuko ahal du ezagutzean guztizko baitan dagoena: Martinen izen onak aspaldi bereganatu zuen eguzkiak berak ere berdin du ezin duen distira.

Andoaindarra ezagutu genuenok eginak gara txapela banaren jabe, Martinen bihotz-begietako Ana Mari ikusten dugun aldirio txapela jasotzeko.